

Prozedura Zibila

HIZTEGIA



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2016

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren
Bibliotekak sarearen katalogoan aurki daiteke:

<http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Argitaraldia: I.a, 2016ko xxxx

Ale-kopurua: 1.500 ale

© argitaraldi honena: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Internet: <http://www.euskara.euskadi.eus/euskalterm>

Azala: Concetta Probanza

Inprimaketa: XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX

ISBN: XXXXXXXXXXXXXXXX

Lege gordailua: XXXXXXXXX

HITZAURREA

Euskararen Aholku Batzordearen Terminologia Batzordeak onartutako hiztegia duzu hau. Hortaz, Batzordeak gomendatu egiten du hiztegi honetako terminologia erabiltzea.

Izan ere, Terminologia Batzordeari dagokio, besteak beste, terminologia-alorrean dauden lehentasunak finkatzea, lan-proposamenak egitea, terminologia-lanerako irizpideak ezartzea, termino lehiakideen arteko lehentasunak jartzea ponderazio-markak finkatuz, eta terminoen erabilera onestea eta gomendatzea. Terminologia Batzordeak urteko jarduketa-planetan jasotzen ditu horiek guztiak.

Hiztegi hau, Terminologia Batzordeak onartutako gainerako hiztegiak bezala, EUSKALTERM Euskal Terminologia Banku Publikoan (www.euskara.euskadi.eus/euskalterm) dago integratuta.

EUSKALTERM erabilera publikoko bankua da, Eusko Jaurlaritzak bideratu eta sustatu nahi duen terminologiaren produkzioaren, kudeaketaren eta hedapenaren muina. Banku hori metodologia eta irizpide jakin batzuen arabera eguneratu eta elikatzen da, betiere Terminologia Batzordeak onartutako jarduketa-planen jarraituz. Beraz, EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa

etengabe elikatzen eta zabaltzen ari gara Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzatik IVAPeekin lankidetzan, euskal terminologiaren normalizazioari eta zabalkundeari ekin eta eusteko.

Garaiazen arabera, gizartea aldatzen den neurrian, hizkuntzak ere aldatzen dira, bizirik badaude, behar berriei erantzuteko. Ondorioz, hizkuntza baten modernizatzearen eta eguneratzearen prozesua ez da inoiz amaitzen. Horregatik, hizkuntzaren altxor lexikoa eta terminologikoa etengabe elikatu behar dira, hizkuntza bera normalizatzeko, batetik, eta erabiltzaileen premiei erantzuteko, bestetik.

Honakoa, hiztegiak jorratzen duen eremuko erabiltzaileen oinarritzko premiak asetzeko baliagarri izatea nahi genuke, baita gure hizkuntzaren normalizazioaren eta eguneratzearen bidean urrats garrantzitsua izatea ere. Hiztegi hau eta honekin batera argitaratzen ditugun guztiak eguneroko jardunean erabiltzera animatzen zaituztegu, euskaldunok hizkuntza gero eta aberatsagoa izan dezagun.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko martxoaren 17a

PATXI BAZTARRIKA GALPARSORO
Hizkuntza Politikarako sailburuordea

HIZTEGIARI BURUZKO ARGIBIDEAK

Hiztegi hau UZEI Terminologia eta Lexikografia Zentroak egin du EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa (www.euskara.euskadi.eus/euskalterm) eguneratzeko eta elikatzeke entitate horrek Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin (HPS) izenpetutako kontratuaren barruan. Kontratua HPSk eta IVAPEk finantzatu dute, bi erakunde horiek sinatutako hitzarmenaren bidez.

EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa da Terminologia Batzordeak¹ finkatutako terminologia-lana zabaltzeko ardatza. Aldi berean esan behar da Terminologia Batzordeak onartutako jarduketa-planen barruan ezarritako lehenasunen arabera eguneratzen dela Terminologia Banku Publikoa. Euskararen Aholku Batzordeko Terminologia-batzorde atal bereziak euskarazko terminologia-lanerako finkatu zuen metodologiari jarraituta, hiztegi hau, lehenengoz, hizkuntzalariez eta eremuko adituez osatutako batzorde teknikoak aztertu eta landu zuen, Terminologia Batzordeari behin betiko proposamena luzatzeko. Normalizazio-prozesuaren azken urratsa Terminologia Batzordeak onartzea izan da. Beraz, hemen duzue eremu honetako terminologiaren erabiltzaileei **Terminologia Batzordeak gomendatzen dien terminologia**.

1 176/2007 DEKRETUA, urriaren 16koa, Euskararen Aholku Batzordeari buruzkoa.

Hiztegien erabilitako ponderazio-markak:

(4) Termino normalizatua/gomendatua

(3) Termino onartua (baina ez lehenetsia, beste bat gomendatzen delako)

Hiztegien erabilitako laburtzapenak:

eu euskara

es español

Sin. sinonimoa

Ik. ikus

NORMALIZAZIOA

BATZORDE TEKNIKOA

Maite Barruetabeña (EHU)

Aitor Gorostiza (Justizia Saila)

Aloña Iribar (UZEI)

Koordinatzailea: **Izaskun Osinalde**

(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

TERMINOLOGIA BATZORDEA

Patxi Baztarrrika Galparsoro, Hizkuntza Politikarako sailburuordea, batzorde-ataleko lehendakaria

Eneko Oregi Goñi, IVApeko zuzendariordea, batzorde-ataleko lehendakariordea

Jorge Giménez Bech, EABko eta batzorde-ataleko idazkaria

Araceli Díaz de Lezana Fernández de Gamarra, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako ordezkaria

Maite Imaz Leunda, IVApeko ordezkaria

Andoni Sagarna Izagirre, Euskaltzaindiaren ordezkaria

Iker Etxebeste Zubizarreta, Unibertsitate Zerbitzueterako Euskal Ikastetxeko (UZEI) ordezkaria

Xabier Alberdi Larizgoitia, Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Institututuko ordezkaria

Ibon Olaziregi Salaberria, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Euskara Zerbitzuaren ordezkaria

Mertxe Olaizola Maiz, aditua

Joseba Erkizia Itoitz, aditua

Asier Larrinaga Larrazabal, aditua

Miel Loinaz Beristain, aditua

Alberto Atxabal Rada, aditua

Alfontso Mujika Etxeberria, aditua

UZEI-REN LANKIDE IZAN DIREN ADITUAK

Aitzol Asla Uribe. Bizkaiko Elkargoa eta Deustuko Unibertsitatea
Ixusko Ordeñana Gezuraga. EHU
Katixa Etxebarria Estankona. EHU
Patxi Etxebarria. EHU

EREMU-ZUHAITZA



- 1 Atal orokorra
- 2 Deklarazio-prozesu arruntak
- 3 Deklarazio-prozesu bereziak
- 3 Errekurtsoak
- 4 Betearazpen-prozesua eta kautela-prozesua

AURKIBIDEA



Bokabularioa sailka

1. ATAL OROKORRA	15
2. DEKLARAZIO-PROZESU ARRUNTAK	21
3. DEKLARAZIO-PROZESU BEREZIAK	25
4. ERREKURTSOAK	27
5. BETEARAZPEN-PROZESUA ETA KAUTELA-PROZESUA.....	28

Euskarazko aurkibidea	31
------------------------------------	-----------

Gaztelaniazko aurkibidea	37
---------------------------------------	-----------

Erreferentzia bibliografikoak	43
--	-----------

BOKABULARIOA SAILKA

I. ATAL OROKORRA

I/2000 Legea, urtarrilaren 7koa, Prozedura Zibilari buruzkoa

Ik. Prozedura Zibilaren Legea

1 adituak narriopean jartze (4)

Sin. perituen narrio (4); perituak arbuizatze (4)

Auzilariak aditu baten irizpenaren frogaindarrak ahultzeko egiten duen alegazioa. Adituaren irizpena partziala izan daitekeela uste duelako egiten du auzilariak alegazio hori.

es tacha de peritos

2 akzio zibil (4)

Eskubideak, interesak edo egoera juridikoak prozesu judizial batean galdatzeko pertsona batek erabil dezakeen baliabidea.

es acción civil

3 antolaketa-eginbide (4)

Sin. antolaketarako eginbide (4)

Idazkari judizialaren ebazpena, autoei legeak ezarritako bidea ematea helburu duena.

es diligencia de ordenación

antolaketarako eginbide

Ik. antolaketa-eginbide

4 arazo intzidental (4)

es cuestión incidental

5 Arlo Zibileko Auzi-iheslarien Erregistro Zentrala (4)

Justizia Administrazioari Laguntzeko Erregistro Administrazioen Sistemako erregistroetako bat. Justizia Ministerioaren mende dago, eta Jarraera Judizialari Laguntzeko Erregistro Administrazioen Zuzendariordetza Nagusiari dagokio erregistroaren kudeaketa. Erregistro horretan inskribatzen dira egoitza ezezaguna izanik prozedura zibilean demandatu direnak, betiere Prozedura Zibilaren Legearen 156. artikuluan zehaztutako ikerketek emaitza positiborik izan ez badute.

es Registro Central de Rebeldes Civiles

6 Auzitegi Goreneko arlo zibileko sala (4)

Auzitegi Goreneko lehendabiziko sala, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 56. artikuluan zehaztutako gaiez arduratzen dena.

es sala de lo civil del Tribunal Supremo

7 Auzitegi nagusiko arlo zibileko eta zigor-arloko sala (4)

Auzitegi nagusiko justizia-saletako bat; arlo zibilean, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 73. artikulua 1. eta 2. paragrafoetan zehaztutako gaiez arduratzen da.

es sala de lo civil y penal del tribunal superior de justicia

8

bake-epaitegi (4)

Kide bakarreko organo judiziala, lehen auzialdiko edo instrukzioko epaitegirik ez dagoen udalerrietan jurisdikzioa duena. Arlo zibilean, 90 eurotik gorako muntakoak ez diren hitzeko judizioez arduratzen da, betiere Prozedura Zibilaren Legearen 250. artikulua lehenengo paragrafoan zehaztutako kasuetako bat ez bada.

es juzgado de paz

9

bitartekaritza (4)

Sin. bitartekotza (4)

es mediación

bitartekotza

Ik. bitartekaritza

10

borondatezko jurisdikzio (4)

es jurisdicción voluntaria

11

dekretu (4)

Idazkari judizialaren ebazpen arrazoitua, kasu hauetan ematen duena: demanda izapidetzea onartzen denean, idazkari judizialaren eskumen eskklusiboko prozedura amaitzen denean, eta edozein motatako prozeduratan beharrezkoa denean edo ebatzitakoa arrazoitzea komenigarria denean.

es decreto

12

demanda (4)

Auzi-jartzailleak edo demandatzaileak jurisdikzio-organoen aurrean babes judiziala idazki bidez eskatzeko egintza prozesala.

es demanda

13

emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegi (4)

Kide bakarreko organo judiziala, egoitza barruti judizialeko hiriburuan duena. Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegi bat edo batzuk daude barruti judizial bakoitzean, udalerrien izena hartzen dute, eta zibileko eta zigor-arloko eskumenak dituzte. Arlo zibilean, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 87 ter artikulua 2. eta

3. paragrafoetan zehaztutako gaiez arduratzen da.

es juzgado de violencia sobre la mujer

epai-aurrekotasun

Ik. prejudizialitate

epaileak errekusatz

Ik. epaileen errekusazio

14

epaileen errekusazio (4)

Sin. epaileak errekusatz (4)

Auziko alderdiek eta Fiskaltzak duten baliabidea, epaileak auziaz arduratzeari utz diezaion haren inpartzialtasuna zalantzan jartzeko arrazoiak daudenean.

es recusación de jueces

erregu-printzipio

Ik. erregututako justiziaren printzipio

15

erregututako justiziaren printzipio (4)

Sin. erregu-printzipio (4)

Auzitegi zibilek auziak alderdiek ekarritako uzi, egitate eta frogen arabera ebatziko dituztela ezartzen duen printzipioa.

es principio de justicia rogada

16

eskumen funtzional (4)

Prozesuko lehen auzialdiaren, intzidenteen, errekurtsioen, kautelaturriren eta epai-betearazpenen ezagutza eta ardura zein jurisdikzio-organori dagokion zehazten duen irizpidea.

es competencia funcional

17

eskumen objektibo (4)

Prozesuko materia eta munta oinarri hartuta, jarduteko ahala zein jurisdikzio-organori dagokion zehazten duen irizpidea.

es competencia objetiva

18

exhorto (4)

Epaille edo auzitegi batek kategoriatu bereko beste bati bidaltzen dion komunikazioa; eginbide judizialen bat egin dezan adierazten dio komunikazio horretan.

es exhorto

19

ikustaldi (4)

es vista

20

jakinarazpen (4)

Sin. jakinarazte (4)

es notificación

jakinarazte

Ik. jakinarazpen

21

judizioko kostuak (4)

Sin. prozesuko kostuak (4)

es costas judiciales; costas procesales

22

jurisdikzio zibil (4)

Sin. jurisdikzio-ordena zibil (4)
Kontu pribatuez gain, gainerako jurisdikzio-ordenei berariaz esleitu ez zaizkien auziez arduratzen den ordena jurisdikzionala.

es jurisdicción civil; ordena jurisdiccional civil

jurisdikzio-ordena zibil

Ik. jurisdikzio zibil

23

lehen auzialdiko epaitegi (4)

Kide bakarreko organo judiziala, egoitza barruti judizialeko hiriburuan duena. Lehen auzialdiko epaitegi bat edo batzuk daude barruti judizial bakoitzean. Auzi zibil guztiez arduratzen dira lehen auzialdian, betiere lege-xedapen bidez bestelako auzitegiei berariaz esleituta ez badaude.

es juzgado de primera instancia

lekukoak arbuatze

Ik. lekukoak narriopean jartze

24

lekukoak narriopean jartze (4)

Sin. lekukoaren narrio (4); lekukoak arbuatze (4)

Auzilariak lekuko baten deklarazioaren frogaindarra ahultzeko egiten duen alegazioa. Lekukoaren deklarazioa partziala izan daitekeela uste duelako egiten du auzilariak alegazio hori.

es tacha de testigos

lekukoaren narrio

Ik. lekukoak narriopean jartze

25

lurralde-eskumen (4)

Maila eta mota bereko organo judicialen artean, jarduteko ahala zein lurralde judiciali dagokion zehazten duen irizpidea.

es competencia territorial

26

merkataritza-arloko epaitegi (4)

Kide bakarreko organo judiciala, jurisdikzioa probintzia osoan duena eta egoitza probintziako hiriburuan duena. Merkataritza-arloko epaitegi bat edo batzuk daude probintzia bakoitzean. Jurisdikzio zibilarren barruan dauden epaitegi espezializatuak dira, eta, beste gai batzuen artean, konkurtso-prozedurez arduratzen dira.

es juzgado de lo mercantil

perituak arbuizatze

Ik. adituak narriopean jartze

perituen narrio

Ik. adituak narriopean jartze

27

prejudizialitate (4)

Sin. epai-aurrekotasun (3)
Jurisdikzio-ordena jakin bateko auzitegiak aztergai duen prozesuko objektua epaitu edo ebatzi aurretik beste ordena jurisdikzional bateko arazo juridiko jakin bat ebatzi behar izatean datzan praktika juridikoa.

es prejudicialidad

preklusio

Ik. preklusio-printzipio

28

preklusio-printzipio (4)

Sin. preklusio (4)
Egintza prozesalاک, eragina izan dezaten, prozesuko une egokian eta bakarrik orduan gauzatu behar direla ezartzen duen printzipioa.

es principio de preclusión;
preclusión

29

probintzia-auzitegi (4)

Kide anitzeko organo judiciala, jurisdikzioa probintzia osoan duena eta egoitza probintziako hiriburuan duena. Probintzia-auzitegi bat dago probintziako hiriburu bakoitzean, eta soilik zibileko eta zigor-arloko eskumenak ditu. Arlo zibilean, lehen auzialdiko epaitegien ebazpenen aurka jarritako apelazio- eta kexa-errekurtsoez arduratzen da, besteak beste.

es audiencia provincial

30

Prozedura Zibilarren Legea (4)

Sin. PZL (4); 1/2000 Legea, urtarrilaren 7koa, Prozedura Zibilar buruzkoa (4)

es Ley de Enjuiciamiento Civil;
LEC; Ley 1/2000, de 7 de enero, de Enjuiciamiento Civil

31

prozesuaren legezkotasun-printzipio (4)

Prozesu zibiletan, auzitegiek eta auzitegietara bertaraturik bertan parte hartzen dutenek Prozedura Zibilar Legean xedatutakoarekin bat jardun behar dutela ezartzen duen printzipioa.

es principio de legalidad procesal

prozesuko kostuak

Ik. judizioko kostuak

PZL

Ik. Prozedura Zibilarren Legea

32

xedapen-printzipio (4)

Modu orokorrean, prozesu zibilean ebazten diren interes pribatuek eraginda, alderdiek prozesuan jarrera aktiboa izan dezaketela ezartzen duen printzipioa. Printzipioak bi eduki ditu: batetik, judizio zibila hasteko nahitaezkoa da alderdien ekimena, eta, bestetik, alderdiek aurkeztutako egitate-materialak soilik ezagutzen ditu epaileak.

es principio dispositivo

2. DEKLARAZIO-PROZESU ARRUNTAK

adituaren irizpen

Ik. peritu-irizpen

agiri pribatu

Ik. dokumentu pribatu

agiri publiko

Ik. dokumentu publiko

33

alderdi izateko gaitasun (4)

Prozesu bateko eskubideen, betebeharren, kargen eta espektatiben titular izateko gaitasuna.

es capacidad para ser parte

alderdiei galdeketa egite

Ik. alderdien galdeketa

34

alderdien galdeketa (4)

Sin. alderdiei galdeketa egite (4)
Alderdi bakoitzak auzitegiari eska diezaiokeen itaun-multzoa, gainerako alderdiei egitekoa judizioaren objektuarekin lotura duten eta ezagutzen dituzten egitate eta inguruabarrei buruz. Alderdiek prozesuan eska ditzaketzen frogabideetako bat da, Prozedura Zibilaren Legearen 301. artikulutik 316. artikulura arautua.

es interrogatorio de las partes

35

amore-emate prozesal (4)

Sin. prozesuari amore emate (4)
Demandatua demandatzailearen eskaerarekin bat datorrela adierazten duen egintza prozesala. Arrazoi materialetan oinarrituta, prozesua modu ezohikoan bukatzeko moduetako bat da. Kondena-epai bidez adierazten da, eta gauza epaituaren efektua du.

es allanamiento procesal;
allanamiento del proceso

36

atariko eginbideak (4)

es diligencias preliminares

atzera eskuratzeko epaiketa

Ik. atzera eskuratzeko judizio

37

atzera eskuratzeko judizio (4)

Sin. atzera eskuratzeko epaiketa (4)

es juicio de retracto

38

atzera-egite prozesal (4)

Sin. prozesuan atzera egite (4)
Demandatzailearen egintza prozesala, demandatzaileak berak hasitako prozesua uzteko borondatea adieraztekoa. Arrazoi prozesaletan oinarrituta, prozesua modu ezohikoan bukatzeko moduetako bat da. Uzia epaitu gabe geratzen da.

es desistimiento procesal;
desistimiento del proceso

aurretiaz adiskidetze

Ik. aurretiazko adiskidetze

39

aurretiazko adiskidetze (4)

Sin. aurretiaz adiskidetze (4)

es conciliación previa

40

auzibitarte (4)

Demanda jarri aurretik zegoen egoeraren eta demanda jarri ondoren sortzen den egoeraren arteko haustura; demanda onartzeak sortzen duen ondore prozesal multzoa.

es litispendencia

auzitarako gaitasun

Ik. gaitasun prozesal

41

azken eginbideak (4)

es diligencias finales

42

azterketa judicial (4)

Egitateak argitzeko edo aintzat hartzeko, epaileak berak toki, objektu edo pertsonaren bat aztertzea.

Alderdiek prozesuan eska ditzaketen frogabideetako bat da, Prozedura Zibilaren Legearen 353. artikulutik 359. artikulura arautua.

es reconocimiento judicial

43

deklarazio-prozesu (4)

Sin. prozesu deklarativo (4)

es proceso declarativo

44

deklinatoria (4)

Prozesuaz arduratzen ari den epaileak edo auzitegiak eskumenik ez duela deklaratzeko planteatzen den eskumen-arazoa.

es declinatoria

45

demanda-erantzun (4)

Sin. demandari erantzute (4)

Demandatuaren prozesuko egintza, alderdi auzi-jartzaileak formulatutako demandari erantzuna ematekoa.

es contestación a la demanda

demandari erantzute

Ik. demanda-erantzun

46

dokumentu pribatu (4)

Sin. agiri pribatu (4)

Prozedura Zibilaren Legearen 317. artikuluan zerrendatuta ez dagoen edozein dokumentu, alegatutako egitate baten egitasuna frogatzeko erabil daitekeena. Alderdiek prozesuan aurkez ditzaketen frogabideetako bat da, Prozedura Zibilaren Legearen 324. artikulutik 327. artikulura arautua.

es documento privado

47

dokumentu publiko (4)

Sin. agiri publiko (4)

Notarioak, funtzionario publiko eskudunak edo fede-emaile publikoak eskuetsitako dokumentua, alegatutako egitate baten egitasuna frogatzeko erabil daitekeena. Prozedura Zibilaren Legearen 317. artikuluan zehazten dira dokumentu publikoak. Alderdiek prozesuan aurkez ditzaketen frogabideetako bat da, Prozedura Zibilaren Legearen 317. artikulutik 323. artikulura arautua.

es documento público

epaiketa arrunt

Ik. judizio arrunt

epaiketa aurreko entzunaldi

Ik. judizio aurreko entzunaldi

48

errekonbentzio (4)

Demandatuak demandatzailearen aurka jartzen duen demanda (kontrademanda), demanda nagusia ebazten duen prozeduraren bidez erabakitzen dena. Ezinbestekoa da bi auzien arteko lotura.

es reconvección

49

gaitasun prozesal (4)

Sin. auzitarako gaitasun (4)
Prozesuan baliozko egintzak gauzatzeko gaitasuna.

es capacidad procesal

hitzezko epaiketa

Ik. hitzezko judizio

50

hitzezko judizio (4)

Sin. hitzezko epaiketa (4)
Prozedura Zibilaren Legearen 437. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako izapideak jarraitzen dituen deklarazio-prozesua. Hitzezko judizioaren bidez izapidetzen dira Prozedura Zibilaren Legearen 250.1 artikuluan aurreikusitako gaiei buruzko demandak eta 6.000 eurotik gorako munta ez duten demandak, betiere Prozedura Zibilaren Legearen 249.1 artikuluan jasotako gaiei buruzkoak ez badira.

es juicio verbal

iraungitze prozesal

Ik. prozesua iraungitze

51

judizio arrunt (4)

Sin. epaiketa arrunt (4)
Prozedura Zibilaren Legearen 399. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako izapideak jarraitzen dituen deklarazio-prozesua. Judizio arruntaren bidez izapidetzen dira: Prozedura Zibilaren Legearen 249.1 artikuluan jasotako gaiei buruzko demandak, legeak berariaz judizio-mota horren bidez bideratu behar direla zehazten dituen demandak, horien munta edozein izanda, eta, azkenik, 6.000 eurotik gorako muntako demandak eta interes ekonomiko kalkulazina dutenak.

es juicio ordinario

52

judizio aurreko entzunaldi (4)

Sin. epaiketa aurreko entzunaldi (4)
es audiencia previa al juicio

largespen prozesal

Ik. prozesua largeste

53

lekukoek galdeketa (4)

Alderdiek auzitegiari eska diezaioketen galdeketa, lekukoei egitekoa judizioaren objektuarekin lotura duten eta ezagutzen dituzten egitate eztabaidagarriei buruz. Alderdiek prozesuan eska ditzaketen frogabideetako bat da, Prozedura Zibilaren Legearen 360. artikulutik 381. artikulura arautua.

es interrogatorio de los testigos

54

peritu-irizpen (4)

Sin. adituaren irizpen (4)

Epaileak ez dituen ezagutzak (zientifikoak, artistikoak, teknikoak zein praktikoak) dituen pertsona batek prozesuko egitate edo inguruabar garrantzitsuak baloratzeko edo horiek egiaztatzeko ematen duen irizpena.

Alderdiek prozesuan aurkez ditzaketen frogabideetako bat da, Prozedura Zibilaren Legearen 335. artikulutik 352. artikulura arautua.

es dictamen pericial

prozesu deklaratio

Ik. deklarazio-prozesu

55

prozesua iraungitze (4)

Sin. iraungitze prozesal (4)

Legean zehaztutako denboran alderdiek jarduerarik egin ez dutelako prozesua bukatzeko egintza prozesala. Arrazoi prozesalean oinarrituta, prozesua modu ezohikoan bukatzeko moduetako bat da. Auto bidez adierazten da.

es caducidad procesal; caducidad del proceso

56

prozesua largeste (4)

Sin. largespen prozesal (4)

Prozesuan sortzen diren eta prozesuak aurrera jarraitzea eragozten duten arazoak daudelako prozesua bukatzeko ondore edo efektua. Arrazoi prozesalean oinarrituta, prozesua modu ezohikoan bukatzeko moduetako bat da. Auto bidez adierazten da.

es sobreseimiento procesal; sobreseimiento del proceso

prozesuan atzera egite

Ik. atzera-egite prozesal

prozesuari amore emate

Ik. amore-emate prozesal

57

prozesuari uko egite (4)

Sin. uko-egite prozesal (4)

Demandatzailearen egintza prozesala, demandatzaileak berak egikaritutako akzioa edo bere uziaren oinarri den eskubidea alde batera uzten duela adieraztekoa. Arrazoi materialetan oinarrituta, prozesua modu ezohikoan bukatzeko moduetako bat da. Gauza epaituaren efektua sortzen du.

es renuncia procesal

58

prozesuko ondorengotza (4)

es sucesión procesal

59

transakzio prozesal (4)

Hasitako prozesu bateko alderdi bakoitzak zerbait emanez, hitzemanen edo atxikiz prozesua amaitzeko kontratua. Arrazoi materialetan oinarrituta, prozesua modu ezohikoan bukatzeko moduetako bat da. Auto bidez adierazten da, titulu betearazlea da autoa, eta gauza epaitu formalaren efektua du.

es transacción procesal; transacción del proceso

uko-egite prozesal

Ik. prozesuari uko egite

utzarazpen-epaiketa

Ik. utzarazpen-judizio

60

utzarazpen-judizio (4)

Sin. utzarazpen-epaiketa (4)

es juicio de desahucio

61

uzi (4)

es pretensión

3. DEKLARAZIO-PROZESU BEREZIAK

62

adingabeei buruzko prozesu (4)

es proceso de menores

63

behin betiko neurri (4)

es medida definitiva

64

demanda aurreko behin-behineko neurri (4)

es medida provisional previa a la demanda

ezkontzaren araubide ekonomikoa likidatzeko prozesu

Ik. ezkontzaren ondasun-eraentza likidatzeko prozesu

65

ezkontzaren ondasun-eraentza likidatzeko prozesu (4)

Sin. ezkontzaren araubide ekonomikoa likidatzeko prozesu (4)

Ezkontzaren edozein ondasun-eraentza likidatzeko deklarazio-prozesu berezia.

Prozesu hori hasten da ezkontideen arteko hitzarmenik ez badago eta ondasun-eraentza horrek zehazten badu, ezkontza-iturunen edo lege-xedapenen bidez, zama eta betebeharrak batzuei lotutako ondasun eta eskubideen masa erkidea dagoela.

es proceso para la liquidación del régimen económico matrimonial

66

ezkontzari buruzko prozesu (4)

es proceso matrimonial

67

filiazioa aurkaratzeko akzio (4)

es acción de impugnación de la filiación

68

filiazioa zehazteko akzio (4)

es acción de determinación de la filiación

69

filiazioari, aitatasunari eta amatasunari buruzko prozesu (4)

es proceso sobre filiación, paternidad y maternidad

herentzia zatitzeko prozesu

Ik. jaraunspena zatitzeko prozesu

herentziako ondasunetan esku hartze

Ik. jaraunspeneko ondasunetan esku hartze

70

hipoteka betearazteko prozesu (4)

Sin. hipoteka exekutatze prozesu (4)

es proceso de ejecución hipotecaria

hipoteka exekutatze prozesu

Ik. hipoteka betearazteko prozesu

71

jaraunspena zatitzeko prozesu (4)

Sin. herentzia zatitzeko prozesu (4); jarauntsia zatitzeko prozesu (4)
Edozein jaraunskidek edo zati alikuotaren legatu-hartzailek judizio bidez jarauntsiaren zatiketa erreklamatzeko deklarazio-prozesu berezia. Prozesu hori hasten da baldin eta zatiketa hori gauzatu behar ez badu testamentugileak izendatutako komisario edo kontulari-banatzzaileak edo zatiketa jaraunskideen arteko hitzarmenaren nahiz ebazpen judizialaren bidez egin behar ez bada.
es proceso para la división de la herencia

72

jaraunspeneko ondasunetan esku hartze (4)

Sin. herentziako ondasunetan esku hartze (4); jarauntsiko ondasunetan esku hartze (4)
es intervención del caudal hereditario

jarauntsia zatitzeko prozesu

Ik. jaraunspena zatitzeko prozesu

jarauntsiko ondasunetan esku hartze

Ik. jaraunspeneko ondasunetan esku hartze

73

kanbio-prozesu (4)

es proceso cambiario

74

konkurtso-prozesu (4)

es proceso concursal

75

pertsonen gaitasunari buruzko prozesu (4)

Arrazoi fisiko, psikiko edo zentzumenezkoak oinarri hartuta hasten den deklarazio-prozesu berezia. Prozesu hori hasten da pertsona batek jarduteko gaitasuna mugatuta duenean edo bere ondasunak administratzeko gai ez denean.
es proceso sobre la capacidad de las personas

76

prozesu monitorio (4)

Prozesu arruntik egin gabe, betearazpen-titulu bat sortzeko deklarazio-prozesu berezia. Prozesu monitorioa egokia da diru-zorra, edozein kopurutakoa izanik, likidoa, mugaeguneratua, galdagarria eta zenbateko zehatzekoa bada eta Prozedura Zibilaren Legearen 812. artikuluan ezarritako dokumentuen bidez egiaztatzen bada.
es proceso monitorio

4. ERREKURTSOAK

77

apelazio-errekurtso (4)

Sin. apelazioko errekurtso (4)

es recurso de apelación

apelazioko errekurtso

Ik. apelazio-errekurtso

78

arau-hauste prozesalaren ondoriozko errekurtso (4)

es recurso por infracción procesal

79

berraztertze-errekurtso (4)

Sin. berraztertze errekurtso (4)

es recurso de reposición

berraztertze errekurtso

Ik. berraztertze-errekurtso

80

berrikuspen-errekurtso (4)

Sin. berrikuspeneko errekurtso (4)

es recurso de revisión

berrikuspeneko errekurtso

Ik. berrikuspen-errekurtso

81

epai irmoa berrikuste (4)

es revisión de sentencia firme

82

epai irmoa hutsaltze (4)

es rescisión de sentencia firme

83

gauza epaitu (4)

es cosa juzgada

84

kasazio-errekurtso (4)

Sin. kasazioko errekurtso (4)

es recurso de casación; recurso casacional

kasazioko errekurtso

Ik. kasazio-errekurtso

85

kexa-errekurtso (4)

Sin. kexako errekurtso (4)

es recurso de queja

kexako errekurtso

Ik. kexa-errekurtso

86

legearen intereseko errekurtso (4)

es recurso en interés de la ley

5. BETEARAZPEN-PROZESUA ETA KAUTELA-PROZESUA

87

administrazio judicial (4)

Prozedura batean, alderdien ondare-
eskubideak bermatzeko, kontrolatzeko
eta babesteko ordenamendu juridikoak
aurreikusten duen baliabidea.

Prozedura Zibilarren Legearen 630.
artikuluari zehaztutako kasuetan era
daiteke.

es administración judicial

88

alderdi betearazle (4)

Sin. alderdi exekutatzaile (4)

es ejecutante; parte ejecutante

alderdi exekutatu

Ik. betearazpeneko alderdi

alderdi exekutatzaile

Ik. alderdi betearazle

89

behin betiko betearazpen (4)

Sin. behin betiko exekuzio (4)

es ejecución definitiva

behin betiko exekuzio

Ik. behin betiko betearazpen

90

behin-behineko betearazpen (4)

Sin. behin-behineko exekuzio (4)
Betearazpen-izaerako erakunde
prozesala, irmo ez diren ebazpen
judizialen betearazpena baimentzen
duena.

es ejecución provisional

behin-behineko exekuzio

Ik. behin-behineko betearazpen

91

betearazpen-agindu orokor (4)

Sin. exekuzio-agindu orokor (4)

es orden general de ejecución

betearazpen-demanda

Ik. demanda betearazle

92

betearazpena abiarazte (4)

Sin. exekuzioa abiarazte (4)

es despacho de ejecución

93

betearazpeneko alderdi (4)

Sin. alderdi exekutatu (4)

es ejecutado; parte ejecutada

94

demanda betearazle (4)

Sin. exekuzio-demanda (4);

betearazpen-demanda (4)

Betearazpen-prozesuari hasiera ematen
dion dokumentua.

es demanda ejecutiva; demanda de
ejecución

95

diruzko betearazpen (4)

Sin. diruzko exekuzio (4)

Nahitaezko betearazpenaren jarduera
jurisdikzionala, titulu betearazleak,
zuzenean edo zeharka, diru-kopuru
likidoa emateko eginbeharra jasotzen
duenean gauzatzen dena.

es ejecución dineraria

diruzko exekuzio

Ik. diruzko betearazpen

diruzkoa ez den exekuzio

Ik. ez-diruzko betearazpen

96

embargo (4)

Epaileak edo agintari eskudunak aginduta, ondasunak atxikitzea, eta prozeduran zein judizioan gertatzen denaren zain uztea.

es embargo

97

eskubide hobeko hirugarrengotza (4)

Hirugarren batek sustatutako akzioa, bere kreditua, alderdi betearazlearenarekin alderatuta, lehentasunezkoa delako baliatzen duena.

es tercería de mejor derecho

exekuzio-agindu orokor

Ik. betearazpen-agindu orokor

exekuzio-demanda

Ik. demanda betearazle

exekuzio-prozesu

Ik. nahitaezko betearazpen-prozesu

exekuzio-titulu estrajudizial

Ik. titulu betearazle ez-judizial

exekuzio-titulu judizial

Ik. titulu betearazle judizial

exekuzioa abiarazte

Ik. betearazpena abiarazte

98

ez-diruzko betearazpen (4)

Sin. diruzkoa ez den exekuzio (4)
Nahitaezko betearazpenaren jarduera jurisdikzionala, titulu betearazleak zerbait egiteko, ez egiteko edo dirukopurua ez den gauza bat emateko kondena nahiz betebeharra jasotzen duenean gauzatzen dena.

es ejecución no dineraria

99

jabari-hirugarrengotza (4)

Hirugarren batek sustatutako akzioa, bere jabetzako ondasun baten gainean embargoa trahatu delako baliatzen duena.

es tercería de dominio

100

kautela-neurri (4)

Sin. kautelazko neurri (4)

es medida cautelar

101

kautela-prozesu (4)

Sin. kautelazko prozesu (4)

es proceso cautelar

kautelazko neurri

Ik. kautela-neurri

kautelazko prozesu

Ik. kautela-prozesu

102

nahitaezko betearazpen-prozesu (4)

Sin. exekuzio-prozesu (4)

es proceso ejecutivo; proceso de ejecución forzosa

103

ordaintzeko administrazio (4)

Betearazpen-neurri zehatza, alderdi betearazleari betearazpeneko zenbatekoa eskuratzeko aukera ematen diona.

es administración para pago

104

ordezko kauzio (4)

es caución sustitutoria

105

premiamendu-prozedura (4)

es procedimiento de apremio

106

titulu betearazle

ez-judizial (4)

Sin. exekuzio-titulu estrajudizial (4)

es título ejecutivo no judicial; título
ejecutivo extrajudicial

107

titulu betearazle judicial (4)

Sin. exekuzio-titulu judicial (4)

es título ejecutivo judicial

EUSKARAZKO AURKIBIDEA



1/2000 Legea, urtarrilaren 7koa,
 Prozedura Zibilari buruzkoa, 30

A

adingabeei buruzko prozesu, 62
 adituak narriropean jartze, 1
 adituaren irizpen, 54
 administrazio judizial, 87
 agiri pribatu, 46
 agiri publiko, 47
 akzio zibil, 2
 alderdi betearazle, 88
 alderdi exekutatu, 93
 alderdi exekutatzaile, 88
 alderdi izateko gaitasun, 33
 alderdiei galdeketa egite, 34
 alderdien galdeketa, 34
 amore-emate prozesal, 35
 antolaketa-eginbide, 3
 antolaketarako eginbide, 3
 apelazio-errekurtso, 77
 apelazioko errekurtso, 77
 arau-hauste prozesalaren ondoriozko
 errekurtso, 78
 arazo intzidental, 4
 Arlo Zibileko Auzi-iheslarien Erregistro
 Zentrala, 5
 atariko eginbideak, 36
 atzera eskuratzeko epaiketa, 37
 atzera eskuratzeko judizio, 37
 atzera-egite prozesal, 38
 aurretiaz adiskidetze, 39
 aurretiazko adiskidetze, 39
 auzibitarte, 40
 auzitarako gaitasun, 49
 Auzitegi Goreneko arlo zibileko sala, 6
 auzitegi nagusiko arlo zibileko eta
 zigor-arloko sala, 7
 azken eginbideak, 41
 azterketa judizial, 42

B

bake-epaitegi, 8
 behin betiko betearazpen, 89
 behin betiko exekuzio, 89
 behin betiko neurri, 63
 behin-behineko betearazpen, 90
 behin-behineko exekuzio, 90
 berraztertze-errekurtso, 79
 berraztertze errekurtso, 79
 berrikuspeneko errekurtso, 80
 berrikuspen-errekurtso, 80
 betearazpena abiarazte, 92
 betearazpen-agindu orokor, 91
 betearazpen-demanda, 94
 betearazpenpeko alderdi, 93
 bitartekaritza, 9
 bitartekotza, 9
 borondatezko jurisdikzio, 10

D

deklarazio-prozesu, 43
 deklinatoria, 44
 dekretu, 11
 demanda, 12
 demanda aurreko behin-behineko
 neurri, 64
 demanda betearazle, 94
 demanda-erantzun, 45
 demandari erantzute, 45
 diruzko betearazpen, 95
 diruzko exekuzio, 95
 diruzkoa ez den exekuzio, 98
 dokumentu pribatu, 46
 dokumentu publiko, 47

E

emakumeen aurkako indarkeriaren
arloko epaitegi, 13
enbargo, 96
epai irmoa berrikuste, 81
epai irmoa hutsaltze, 82
epai-aurrekotasun, 27
epaiketa arrunt, 51
epaiketa aurreko entzunaldi, 52
epaileak errekusatzeko, 14
epaileen errekusazio, 14
erregu-printzipio, 15
erregututako justiziaren printzipio, 15
errekonbentzio, 48
eskubide hobeko hirugarrengotza, 97
eskumen funtzional, 16
eskumen objektibo, 17
exekuzio-agindu orokor, 91
exekuzio-demanda, 94
exekuzio-prozesu, 102
exekuzio-titulu estrajudizial, 106
exekuzio-titulu judizial, 107
exekuzioa abiarazte, 92
exhorto, 18
ez-diruzko betearazpen, 98
ezkontzaren araubide ekonomikoa
likidatzeko prozesu, 65
ezkontzaren ondasun-eraentza
likidatzeko prozesu, 65
ezkontzari buruzko prozesu, 66

F

filiazioa aurkaratzeko akzio, 67
filiazioa zehazteko akzio, 68
filiazioari, aitatasunari eta amatasunari
buruzko prozesu, 69

G

gaitasun prozesal, 49
gauza epaitu, 83

H

herentzia zatitzeko prozesu, 71
herentziako ondasunetan esku
hartze, 72
hipoteka betearazteko prozesu, 70
hipoteka exekutatze prozesu, 70
hitzezko epaiketa, 50
hitzezko judizio, 50

I

ikustaldi, 19
iraungitze prozesal, 55

J

jabari-hirugarrengotza, 99
jakinarazpen, 20
jakinarazte, 20
jaraunspena zatitzeko prozesu, 71
jaraunspeneko ondasunetan esku
hartze, 72
jarauntsia zatitzeko prozesu, 71
jarauntsiko ondasunetan esku
hartze, 72
judizio arrunt, 51
judizio aurreko entzunaldi, 52

judizioko kostuak, 21
jurisdikzio zibil, 22
jurisdikzio-ordena zibil, 22

K

kanbio-prozesu, 73
kasazio-errekurtso, 84
kasazioko errekurtso, 84
kautela-neurri, 100
kautela-prozesu, 101
kautelazko neurri, 100
kautelazko prozesu, 101
kexa-errekurtso, 85
kexako errekurtso, 85
konkurtsu-prozesu, 74

L

largespen prozesal, 56
legearen intereseko errekurtso, 86
lehen auzialdiko epaitegi, 23
lekukoak arbuiatze, 24
lekukoak narriopean jartze, 24
lekukoen galdeketa, 53
lekukoen narrio, 24
lurralde-eskumen, 25

M

merkataritza-arloko epaitegi, 26

N

nahitaezko betearazpen-prozesu, 102

O

ordaintzeko administrazio, 103
ordezko kauzio, 104

P

perituak arbuiatze, 1
perituen narrio, 1
peritu-irizpen, 54
pertsonen gaitasunari buruzko
prozesu, 75
prejudizialitate, 27
preklusio, 28
preklusio-printzipio, 28
premiamendu-prozedura, 105
probintzia-auzitegi, 29
Prozedura Zibilaren Legea, 30
prozesu deklaratio, 43
prozesu monitorio, 76
prozesua iraingitze, 55
prozesua largeste, 56
prozesuan atzera egite, 38
prozesuaren legezotasun-
printzipio, 31
prozesuari amore emate, 35
prozesuari uko egite, 57
prozesuko kostuak, 21
prozesuko ondorengotza, 58
PZL, 30

T

titulu betearazle ez-judizial, 106
titulu betearazle judizial, 107
transakzio prozesal, 59

X

xedapen-printzipio, 32

U

uko-egite prozesal, 57
utzarazpen-epaiketa, 60
utzarazpen-judizio, 60
uzi, 61

GAZTELANIAZKO AURKIBIDEA



A

acción civil, 2
acción de determinación de la filiación, 68
acción de impugnación de la filiación, 67
administración judicial, 87
administración para pago, 103
allanamiento del proceso, 35
allanamiento procesal, 35
audiencia previa al juicio, 52
audiencia provincial, 29

C

caducidad del proceso, 55
caducidad procesal, 55
capacidad para ser parte, 33
capacidad procesal, 49
caución sustitutoria, 104
competencia funcional, 16
competencia objetiva, 17
competencia territorial, 25
conciliación previa, 39
contestación a la demanda, 45
cosa juzgada, 83
costas judiciales, 21
costas procesales, 21
cuestión incidental, 4

D

declinatoria, 44
decreto, 11
demanda, 12

demanda de ejecución, 94
demanda ejecutiva, 94
desistimiento del proceso, 38
desistimiento procesal, 38
despacho de ejecución, 92
dictamen pericial, 54
diligencia de ordenación, 3
diligencias finales, 41
diligencias preliminares, 36
documento privado, 46
documento público, 47

E

ejecución definitiva, 89
ejecución dineraria, 95
ejecución no dineraria, 98
ejecución provisional, 90
ejecutado, 93
ejecutante, 88
embargo, 96
exhorto, 18

I

interrogatorio de las partes, 34
interrogatorio de los testigos, 53
intervención del caudal hereditario, 72

J

juicio de desahucio, 60
juicio de retracto, 37
juicio ordinario, 51

juicio verbal, 50
jurisdicción civil, 22
jurisdicción voluntaria, 10
juzgado de lo mercantil, 26
juzgado de paz, 8
juzgado de primera instancia, 23
juzgado de violencia sobre la mujer, 13

L

LEC, 30
Ley 1/2000, de 7 de enero, de
Enjuiciamiento Civil, 30
Ley de Enjuiciamiento Civil, 30
litispendencia, 40

M

mediación, 9
medida cautelar, 100
medida definitiva, 63
medida provisional previa a la
demanda, 64

N

notificación, 20

O

orden general de ejecución, 91
orden jurisdiccional civil, 22

P

parte ejecutada, 93
parte ejecutante, 88
preclusión, 28
prejudicialidad, 27
pretensión, 61
principio de justicia rogada, 15
principio de legalidad procesal, 31
principio de preclusión, 28
principio dispositivo, 32
procedimiento de apremio, 105
proceso cambiario, 73
proceso cautelar, 101
proceso concursal, 74
proceso de ejecución forzosa, 102
proceso de ejecución hipotecaria, 70
proceso de menores, 62
proceso declarativo, 43
proceso ejecutivo, 102
proceso matrimonial, 66
proceso monitorio, 76
proceso para la división de la herencia,
71
proceso para la liquidación del régimen
económico matrimonial, 65
proceso sobre filiación, paternidad y
maternidad, 69
proceso sobre la capacidad de las
personas, 75

R

reconocimiento judicial, 42
reconvención, 48
recurso casacional, 84
recurso de apelación, 77
recurso de casación, 84
recurso de queja, 85
recurso de reposición, 79
recurso de revisión, 80
recurso en interés de la ley, 86
recurso por infracción procesal, 78
recusación de jueces, 14
Registro Central de Rebeldes Civiles, 5
renuncia procesal, 57
rescisión de sentencia firme, 82
revisión de sentencia firme, 81

S

sala de lo civil del Tribunal Supremo, 6
sala de lo civil y penal del tribunal
superior de justicia, 7
sobreseimiento del proceso, 56
sobreseimiento procesal, 56
sucesión procesal, 58

T

tacha de peritos, 1
tacha de testigos, 24
tercería de dominio, 99
tercería de mejor derecho, 97
título ejecutivo extrajudicial, 106
título ejecutivo judicial, 107
título ejecutivo no judicial, 106
transacción del proceso, 59
transacción procesal, 59

V

vista, 19

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

ARISTONDO, A.; ATXABAL, A.; OTADUI, A. [et. al] [itz.]. *Prozedura Zibilaren Legea = Ley de Enjuiciamiento Civil*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea. 2004 [Lege-testuak = Textos legales].

AFIGE.es [linean]. <www.afige.es> [Kontsulta: 2012-12-21].

definicionlegal.com La web de las definiciones legales [linean]. <www.definicionlegal.com> [Kontsulta: 2012-12-21].

Enciclopedia Jurídica [linean]. <www.encyclopedia-juridica.biz14.com> [Kontsulta: 2012-12-21].

ETXEBARRIA, Katixa; PÉREZ, Josune; SAIZ, Alberto eta ORDEÑANA, Ixusko. Prozesu zibil bereziak [linean]. *Euskara Errektoreordetzaren sare argitalpena*. [Bilbo]: EHUko ikasmaterialen sare argitalpena, 2008. <<http://testubiltegia.ehu.es/Prozesu-zibil-bereziak>> [Kontsulta: 2012-09-27].

Ley 1/2000, de 7 de enero, de Enjuiciamiento Civil [linean]. <http://noticias.juridicas.com/base_datos/Privado/11-2000.html> [Kontsulta: 2012-09-27].

Ley de Enjuiciamiento Civil. Real Decreto de Promulgación de 3 de febrero de 1881 [linean]. <<http://www.noticias.juridicas.com/Lec/Privado/lec.html>> [Kontsulta: 2012-12-21].

Ley Orgánica 6/1985, de 1 de julio, del Poder Judicial [linean]. <http://noticias.juridicas.com/base_datos/Admin/lo6-1985.html> [Kontsulta: 2012-11-30].

ORDEÑANA, I.; ETXEBARRIA, K.; PEREZ, J. *Epai-babes zibil adierazlea: prozesu zibil adierazle arruntak*. Leioa: EHU. Euskara errektoreordetzaren sare argitalpena, 2007.

ORDEÑANA, Ixusko; ETXEBARRIA, Katixa; PÉREZ, Josune eta SAIZ, Alberto. *Prozesu zibila: exekuzioa eta kautelazko neurriak* [linean]. Euskara Errektoreordetzaren sare argitalpena. [Bilbo]: EHUko ikasmaterialen sare argitalpena, 2007. <<http://testubiltegia.ehu.es/Prozesu-zibila>> [Kontsulta: 2012-09-27].

Prozedura Zibilaren Legeko berategia = Vocabulario de la Ley de Enjuiciamiento Civil [linean]. <<http://www.iev.deusto.es/servlet/BlobServer?blobheadername3=MDT-Type&blobcol=urldata&blobtable=MungoBlobs&blobheadervalue2=inline%3B+filename/287/927/Vocabulario%20de%20la%20Ley%20de%20Enjuiciamiento%20Civil%203.1.pdf&blobheadername2=Content-Disposition&csblobid=1178114097641&blobheadervalue1=application/pdf&blobkey=id&blobheadername1=content-type&blobwhere=1159442306179&blobheadervalue3=abinary%3B+charset%3DU+TF-8>> [Kontsulta: 2012-09-27].

